

Kontu kontari →

Fred Fort ◊ Poeta, idazle, errugbilari ohi eta zale...

Preso izanen zen, ez balitz bere adinagatik, baina nehoiz baino askeago, idazten segitzen du, baita irakurketa eta poesia ikusgarriak prestatzen eta errugbi partidak gozatzen ere.

«Poesia edozein gaitaz idatz dezakezu, baita poliziaz ere»

Nora Arbelbide Baiona

Orriak eta orriak beharko lirateke bere potreta zorrotz baten idazteko. Bizi luze bezain aberatsa baitu Fortek (Oloron, 1932). Gaur, poeta gisa da ezagutua, baina errugbilari gisa ere fama ederra izana du, 1950eko hamarkadan, 3. lerroko jolakalari. Hainfite ari zen, non memento berean leku guztietan ari zela baitzioten. Frantziako taldeko kapitaina izan zen, eta Parisko PUC klubarekin bi aldiz Frantziako txapeldun. Agen eta Vichyn ere aritua da. Leo Ferre poetarekin buruz buru trukatzeko aukera izana du. Kirol irakasle izan zen, eta erretretan etorri ahal izan du osoki bizitzera Euskal Herrira. 2008an, atxilotu zuten. Auziaren zain dago orain.

Zertan pasatzen dituzu egunak?

Urte eta erdi honetan, herrien bitartean nabil. Herri txikiak gehienbat. Herriaren sorreratik gaur egun arte bere historia zeharkatzen dut. Jadanik bi liburu argitaratuak ditut horretaz, eta hirugarrena bururatzen ari naiz.

Eguneroko horretan, justiziaren kontrolpean segitzen duzu, ez?

Bai, astero Baionako polizia etxera noa. Eta baimen bereziak eskatu behar ditut Pirinio Atlantikoe-tatik ateratzeko. Gertatu izan zait galdegitea ekitaldi kultural batzuetarako, liburu azoka edo.

Auziaz zertanda?

Beha gaude. Hiru urte pasa dira, soilik. *Soilik* parentesien artean. Oraindik lauzpabost urte itxoin beharko ditut, gutxienez. Peio Serbiellek, adibidez, bost urte ditu justiziaren kontrolpean. Orduko, teteldua izanen naiz beharbada, edo ez arras, baina horrek ez nau askorik arranguratsen.

Atxiloketa hartaz prentsan zenbat xehetasun agertu ziren; baina zuk bizi izan duzuna zer izan da?

Laguntzen dituzularik lagun batzuk, eta lagun horiek harrapatuak direlarik, badakizu zuek harrapatuko zaituztela... Nik apartamentu bat alokatu dut. Eta apartamentu bat alokatzen duzularik txekiak egin behar dituzu jabeari ematen dituzunak. Ez du osik nahi, eta ezin nuen izen faltsu

- **Leo Ferre?** Jaun bat!
- **Oldar bat?** 1968. Bizi izan dudana.
- **Amets bat?** Euskal Herri askea.
- **Plazer bat?** Ikustea!
- **Kantu bat?** *Les Anarchistes* (Leo Ferre).
- **Errugbia?** Munduko jokorik ederrena.
- **Aviron Bayonnais?** Partidak, besta egunak.
- **Jokalari bat?** Jauzion, munduko hoberena gaur.

bat erabili, ze horretarako, txeki txartel faltsu bat beharko nuen. Eta hortik ere kate guztia berriz osa zezaketen. Azken lau urteko kontuak arakatu dizkidate.

Zer irakurketa egiten duzu gertakari horretaz?

Banekien horrela gertatuko zela. Egun batean edo bestean harrapatuko nindutela. Eta hori jakinik egin dut egin dudana. Ez zait damutzen. Ez naute manipulatu. Atxilotu, eta behin baino gehiagotan galdegin didate nire txeki txartela ez ote zidaten ebatsi. Nire ardura txikitu nahi balute bezala, *terrorista* horiei begira. Nik, aldiz, ez dut ukatu aurkitu duten guztia. Ukatu banu, berriz deituko ninduten. Ni, hartua naizelarik, hartua naiz. Froga guztiak dituztelarik, ukatzeak ez du fitsik balio, ez bada Le Vert eta bere lagunak zure kontra itzulikatzea oraindik gehiago. Horrek baldintzatzen du baita ere preso sartzea ala ez.

Zure adinakeragina izan du ere?

Bai. Medikuaren txostena baitzuten. Gainera, ez nintzen zuzenean atentatuetan inplikatu. Nire etxea arakatu zutelarik, nire bihotz arazoei buruzko dokumentazioa aurkitu zuten. Arazoak ez dira biziki larriak, baina arazoak dira. Eta, horregatik, autoz eraman ninduten Bordeleraino. Han, bi egun pasa nituen, eta gero Pariseraino ere, autoz. Eta Parisen ere, nahiz eta fermuak izan, inspektoreen jarrera zuzena izan zen. Ez zaituzte behartzen mintzatzera. Ez baduzu hitz egiteko gogorik, ez duzu hitz egiten.

Oloren sortua, zerk egin du gaur egun horretan zaudela?

Ama andereño zela Bidartera izendatuzuten. 20 bat urtenituen. Eta nire lehen oroitzapen handiena bentetan gertatu zen. Goizeko oren bata aldera zen. Lehen aldia izan zen non abesbatza euskaldun bat entzun bainuen. Zur eta lur gelditu nintzen. Nire bizi osoa markatu dit horrek. «Horrela kantatzen badute, zerbait erratekoa dutelako da», hori da neure buruari erran niona. Segidan horreko sentitu nintzen, nahiz eta amaren kultura kultura biarnesa izan. Eta hortik, nihaurek ere izan ditut gauzak errateko.

Poeta ere bazara, horretaz idazteko asmorik?

Ez dut asmo berezirik. Baina egia da noiztenka mezu batzuk pasazten ditudala nire poemen bidez. Euskarari buruz eta...

Demo pour le dire olerki bilduma atera zenuen; hainbatek euskaratu zizkizuten olerkiak.

Bai, adibidez. Baina ETAz ezingo nuke, ez dut aski ongi ezagutzen bere historia.

Poesia bidez agian?

Beharbada. Gauza batzuk erran ditzakezu poesia bidez... Geratu izan zait gauzak idaztea, ez balira poesia bidez erranak izan, batzuk ataka zitzaizketen, beharbada.

Nondik etorri zaizu idazteko gogoa?

Istoria zahar bat da... Ateratzeko adina izan nuelarik, ez zen telefoniarik, ez zen mobiletarik, ez zen ezer... Ni kirolari esker atera egiten nintzen. Neska bat ezagutu nuen. Eta orduan, neska baten atxikitzeke, idatzi behar zen. Idatziek betidanik hunki dituzte neskek. Anitz idazten nuen orduan. Eta gero, artikuluak idazten hasi nintzen. Kirol irakasle gisa azken hogeitau urteak Savoia Garaian egin nituela, kirol erreportajeak idazten hasi nintzen. Hona etorri nintzelarik, denbora baliatuz ipuin liburuak idazten hasi nintzen.

Poesiatik errugbira... errugbian aritu baitzara urteetan; nolaz?

Hamahiru sasoi jokatu izan ditut maila gorenean, gaur egungo Top14aren mailan. Lehenik, militar gisa hasi nintzen, soldaduskan, Parisen. Kirola egiteak sal-



GAIZKA IROZ

batu ninduen. Kasernan errugbi talde handi bat bazen, eta jokalaria bilatzen zituzten. Eta ni, ikusiz zein handia nintzen eta nondik heldu nintzen, errugbian jokatu ote nuen galdegin zidaten. Baietz erantzun behar nuela sentitu nuen, nahiz eta ez egia izan. Eta, ordutik, errugbian aritu nintzen, ez nuen armarik hunkitu. Soldaduska bururatu, eta Parisen segitu nuen errugbian, PUC klubean, Frantziako klub hobere-netako batean.

Izar bat zinela erran dit txori batek, telebistan eta pasatzen zinen; Freddy Fort edo Le Geant izengoitia eman zizuten...

Nire 1,93 metroekin handia eta luzea nintzen; besteak, aldiz, azkarrak ziren, 1,90 m egin arren. Telebistan pasatzen ginen, baina ez partida osoa. Harrotasun bat sentitzen duzu beti horrelakotan. Gazteekin eta, goxoa zen. Autografoak izenpetzeaz gain, gutunak ere errezipitzen nituen. Irringarria zen.

Lehenko errugbia eta oraingoa franko desberdinak dira, ez?

Jokalaria ez ziren gaur bezain

ongi prestatuak. Astean bizpahiru aldiz bakarrik berotzen ziren. Orain, egunero. Ni gehiago berotzen nintzen atletismoa egiten nuelako. Atletismoan errugbian baino hobea nintzen, baina, horretarako, Parisen egon beharko nuen, eta nik ez nuen nahi han egon. Atletismoari esker, besteek baino lasterrago korrika egiten nuen.

Errugbia beti kirol ederra iruditzen zaizu?

Bai. Badakigu arauak ez direla berdinak, baina biziki ederra izan daiteke. Tristea ere izan daitekeen bezala. Badira partida onak, badira txarrak, horrela bizitu behar da.

Errugbiaz idatziko zenuke?

Bai, idatzia izan dut. Edozein gairi buruz idatz dezakezu poesia. Baita poliziaz ere...

Errugbia bera poesia mota bat ote?

Dantza bat da. Ballet bat. Korrika ari direlarik, plakatzeke prest, abiadura handian errekuperatu baloia...

Polizia, ordea...

[Irriak] Ez dute hain gora salto egiten...